DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Gizarte Ekintza
Acción Social

Urdaneta, 13 | Tel. 943481400 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

D-18.015

**UDALBATZARI**

Gizarte Ekintzako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek “Etxez etxeko Laguntza Udal Zerbitzua arautzen duen Erreglamendu” berria idatzi dute, izapidetu dadin eta, hala badagokio, onar dadin. Udalbilkurak onartzen badu, erreglamendu berriak gaur egun indarrean dagoen “Etxez etxeko Laguntzarako Zerbitzuaren Udal Arautegia” ordezkatuko du.

Azken araudi hau Udalbilkurak 2005eko maiatzaren 31ean onartu zuen Gizarte Zerbitzuen 5/1996 Legean, urriaren 18koa, ezarritakoari jarraiki. Beranduago, 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Estatuko Legea, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak eta 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Euskal Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, onartu egin ziren. Bi lege hauek eragin nabarmena izan dute gizarte zerbitzuen esparruan, oro har, eta mendekotasunari arreta ematearen eta desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak bermatzearen esparruan, bereziki. Hori dela eta, udal-araudia egokitzapen bat eskatzen du, legegintzan egin diren garrantzizko aldaketei dagokienez.

Marko arauemaile berri honetan, etxez etxeko laguntza zerbitzua, mendetasun egoeran edo mendetasun arriskuan dauden pertsonek duten eskubide subjektibo bezala eta udal eskumenekoa den lehen mailako gizarte zerbitzu bezala konfiguratzen da.

Esandako aldaketa arauemaileez gain, gure errealitate sozialean ere aldaketak antzeman ditzakegu: adinekoen hazkunde demografiko mailakatua, bizi-itxaropena areagotzearen eta adin-piramidearen aldaketaren ondoriozkoa, familia-harremanetan gertatutakoak, babes agente gisa eta azkenik, gizarte-zerbitzuen garapenean gertatutako aldaketak.

Pertsonei beren mendetasun mailakatuan laguntzeko zerbitzuak nola eman pentsatu eta zehazteko, lehentasunezkoa da pertsona horiek ahalik eta denbora gehien beren etxean geratzeko nahia kontuan hartzea, bizitza osoan zehar izan duten erreferentziazko sare soziala mantenduz.

Era berean, mendetasun egoeran edo mendetasun egoeran egoteko arriskuan dauden pertsonei arreta

**AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO**

Los Servicios Técnicos de la Dirección de Acción Social, han redactado para su tramitación y posterior aprobación si procede, el nuevo “Reglamento Regulador de Servicio Municipal de Ayuda Domiciliaria”. Este nuevo reglamento, en caso de ser aprobado finalmente por el Pleno, sustituirá al “Reglamento Municipal regulador del Servicio Municipal de Ayuda Domiciliaria”, vigente en la actualidad.

Este último reglamento fue aprobado por el Pleno del Ayuntamiento el 31 de mayo de 2005, en base al marco legal establecido en la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales. Con posterioridad, se ha aprobado la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia y la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales. Ambas leyes han tenido una repercusión notable tanto en el ámbito de los servicios sociales en general, como en la atención a la dependencia y los derechos de las personas con discapacidad en particular, lo que obliga a adaptar la regulación municipal a los importantes cambios legislativos.

En este nuevo marco normativo, el servicio de ayuda domiciliaria se configura como un derecho subjetivo de aquellas personas en situación de dependencia o en riesgo de dependencia y como un servicio social de atención primaria de competencia municipal.

Además de dichos cambios normativos, se ha producido una evolución en nuestra realidad social; el aumento demográfico progresivo de las personas mayores, debido al aumento en la esperanza de vida y a la modificación de la pirámide de edad, además del cambio en las relaciones familiares como agentes de protección y del desarrollo de los servicios sociales.

La voluntad reiterada de las personas en permanecer el mayor tiempo posible en su propio domicilio, manteniendo la red social de referencia que ha tenido a lo largo de toda la vida, es algo prioritario en la consideración y determinación de los servicios de apoyo a estas personas en su progresiva dependencia.

Asimismo, junto a esa necesidad de dar atención a las personas en situación de dependencia o en

emateko behar horrekin batera, egoera sozial konplexuak sortzen ari dira. Izan ere, zaurgarritasun edo ahultasun sozialeko egoeran bizi diren familia batzuek, beren beharrizanek oinarrizko arreta jaso dezaten, etxez etxeko laguntza behar dute.

riesgo de dependencia, van surgiendo situaciones sociales complejas: hay personas o familias en situación de debilidad o vulnerabilidad social que precisan ayuda domiciliaria para poder responder a sus necesidades de atención básica.

Gizarte testuinguru horretan, etxez-etxeko laguntza zerbitzua funtsezko gizarte-zerbitzu bat da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman, behar mota askotara egokitzeko eta zerbitzua ordu edo zatika ere emateko modukoa eta, era berean, larrialdiei erantzutea bere gain hartzeko eta zerbitzu beharren aldaketei arin erantzuteko gauza izango dena.

En este contexto social, el servicio de ayuda domiciliaria es un servicio social clave en el Sistema Vasco de Servicios Sociales por tratarse de un servicio adaptable a las necesidades más variadas y fraccionable en tiempos, que asume intervenciones de urgencia y puede responder ágilmente a las modificaciones de la necesidad del servicio.

Beraz, Etxez etxeko Laguntza Udal Zerbitzua arautzen duen Erreglamendua berriaren helburua, udal araudia araudi berrira egokitzea da eta baita gizarte errealitate berriara eta Donostiako herritarren beharretara ere. Baina, horrez gainera, araudi berriak, Gizarte Zerbitzuetako erakunde arteko mahaian 2017. urtean zerbitzua hobetzeko hartutako hainbat akordio jasotzen ditu, esate baterako, intentsitate malguagoak finkatzea; zerbitzua urteko egun guztietan ezartzea ezohikoa izan gabe; arreta berehala jasotzeko modalitatea finkatzea; pertsona erabiltzaileen ordainketa partekatua murriztea eta zerbitzua mendekotasunik ez duten pertsonei zabaltzea.

Por lo tanto, con la aprobación del nuevo Reglamento Regulador del Servicio Municipal de Ayuda Domiciliaria, se persigue adecuar la normativa municipal al nuevo entorno normativo, así como a la nueva realidad social y a las necesidades de la población donostiarra, al mismo tiempo que se recogen diversos aspectos de mejora del servicio acordados el seno de la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales durante el año 2017, como por ejemplo, fijar intensidades más flexibles, establecer el servicio durante todos los días del año sin carácter de excepcionalidad, afianzar la modalidad de acceso urgente, reducir el copago de las personas usuarias y extender el servicio a personas no calificadas como dependientes.

Araudiaren egiturari dagokionean, honek zioen azalpena, bi titulu, hiru xedapen gehigarri, aldi baterako xedapen bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi amaierako bi xedapen ditu.

En cuanto a la estructura del reglamento, éste se compone de una exposición de motivos, dos títulos, tres disposiciones adicionales, una disposición transitoria, una disposición derogatoria, dos disposiciones finales y dos anexos.

Lehenengo Titulua xedapen orokorrei buruzkoa da, eta araudiaren helburua, aplikazio eremua, zerbitzuaren definizioa eta bere helburuak zeintzuk diren azaltzen du.

El Primer Título es relativo a las disposiciones generales, concretando el objeto, ámbito de aplicación, definición del servicio y objetivos del mismo.

Bigarren Tituluak 3 kapitulu ditu: lehenak, zerbitzuaren baitako prestazioak, baztertutako prestazioak, zerbitzuaren aldaera eta bere ezaugarriak definitzen ditu; bigarrena, erabiltzaileei buruzkoa da; hirugarrenak, zerbitzura sartzeko prozedura arautzen du; laugarrena, zerbitzuaren eteteari eta iraungitzeari buruzkoa da; eta azkenik, bostgarrena zerbitzuaren erregimen ekonomikoari buruzkoa da.

El Segundo Titulo se compone de tres capítulos: el primero define las prestaciones incluidas y excluidas del servicio, la variante del servicio y las características de éste; el segundo versa sobre las personas usuarias; el tercero regula el procedimiento de acceso al servicio; el cuarto trata de la suspensión y extinción del servicio; y finalmente, el quinto, versa sobre el régimen económico del servicio.

Azkenik, I. Eranskinak zerbitzuan sartzeko baremoa arautzen du, eta II. Eranskinak berriz, ekarpen ekonomikoaren baremoa arautzen du.

Finalmente, el Anexo I regula el baremo de acceso, mientras que el Anexo II regula el baremo de aportación económica.

Araudi honen bidez arautzen da etxez etxeko laguntza zerbitzuaz baliatzeko jarraitu beharreko prozedura, haren beharra duten pertsonei balioespena egin, eskubideak aitortu eta arreta pertsonalizatua emateko plana egin ondoren. Zentzu honetan, azpimarra daiteke mendetasun egoeran edo mendetasun arriskuan dauden pertsonaz gain, zaurgarritasun edo ahultasun sozialeko egoeran dauden pertsona eta familiak ere izan daitezkeela etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak.

El reglamento regula el procedimiento de acceso de las personas en situación de necesidad al servicio municipal de ayuda domiciliaria, una vez que dichas personas han sido valoradas, les han sido reconocidos sus derechos y se ha elaborado un plan de atención personalizada. En este sentido, cabe destacar que podrán ser destinatarias del servicio de ayuda a domicilio, además de las personas en situación de dependencia o en riesgo de dependencia, otras personas o familias en situación de debilidad o vulnerabilidad social.

Bestalde, zerbitzua ere definitzen du, hau da, zerbitzuan zer sartzen den eta zer ez den sartzen zehazten du, herritarrek zer eskubide dituzten jakin dezaten.

Por otro lado, también se definen las prestaciones incluidas y excluidas del servicio a fin de que la ciudadanía conozca los derechos que quedan reconocidos.

Halako zerbitzuez baliatzeko prozedurak hainbat baldintzatzaile ditu, eta horien artean nabarmendu nahi dugu zerbitzu mugatuak direla (intentsitate aldetik eta zaintza zerbitzu motaren aldetik) eta modu partekatuan ordaintzen direla, baremo bat aplikatuz. Halako kontuak ere arautzen dira hemen.

Cabe significar que lo que se denomina procedimiento de acceso a este tipo de servicios está sometido a varios condicionantes, entre los que destacaríamos que se trata de servicios limitados (en su intensidad y el tipo de prestaciones de cuidado) y de servicio sujeto a un copago que se determina en aplicación de un baremo, cuestiones que también son objeto de regulación por esta norma.

Zioen azalpenean, behar bezala arrazoitu da araudia bat datorrela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (urriaren 1eko 39/2015) 129. artikuluan xedatutako erregulazio onaren printzipioekin.

En la exposición de motivos, ha quedado suficientemente justificada la adecuación del Reglamento a los principios de buena regulación establecidos en el artículo 129 de la Ley 29/2015 de 1 de octubre de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Gainera, egin beharreko jarduerak egin dira, araudiaren elaborazioan herritarren parte hartzea bermatze aldera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (urriaren 1eko 39/2015) 133. artikuluan eskatzen den eran.

También se han realizado las actuaciones necesarias para garantizar la efectiva participación ciudadana en la elaboración del reglamento tal como se establece en el artículo 133 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Era berean, Gizarte Ekintzako Kontseiluaren Erreglamenduaren (2015eko martxoaren 26an Udalbilkurak onartua) 2. eta 4.c) artikuluek xedatutakoari jarraituz, 2018ko ekainaren 27an Gizarte Ekintzako Kontseiluaren ohiko bilkura egin zen. Gai zerrendan, gai bakarra zegoen: Etxez-etxeko Laguntza Udal Zerbitzua arautzen duen Erreglamendua. Bilkurako aktan jaso ziren Kontseiluko kideek egindako hainbat hobekuntza proposamen.

Asimismo, en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 2 y 4.c) del Reglamento del Consejo de Acción Social aprobado por el Pleno el 26 de marzo de 2015, se celebró sesión ordinaria del Consejo de Acción Social el 27 de junio de 2018 con el nuevo Reglamento del Servicio Municipal de Ayuda Domiciliaria como único tema en el orden del día, recogiéndose en el acta de la sesión las diversas propuestas de mejora realizadas por los miembros del Consejo.

Horiek horrela, aurrez Gobernu Batzarrean eztabaidatu ondoren, honako hauek onartzea proposatzen diogu Udalbatzari:

A la vista de lo expuesto, se propone al Excmo. Ayuntamiento en Pleno, previa deliberación de la Junta de Gobierno Local, la adopción de los

siguientes:

**ERABAKIAK**

**LEHENA.-** “Etxez etxeko Laguntza Udal Zerbitzua arautzen duen Erreglamendua” hasiera batean onartzea.

**BIGARRENA.-** Espedientea informazio publikoko eta interesdunen entzunaldiko izapidean jartzea hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko.

**HIRUGARRENA.-** Ez bada erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten, akordioa behin betiko onartuta dagoela ulertuko da.

Donostian, 2018ko urriaren 17an

**ACUERDOS**

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente el “Reglamento Regulador del Servicio Municipal de Ayuda Domiciliaria”.

**SEGUNDO**.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

**TERCERO.-** En el caso de que no se presentase ninguna reclamación o sugerencia se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

En donostia, a 17 de octubre de 2018

GIZARTE EKINTZAKO IDAZKARI TEKNIKOA

Izpta./Fdo. Nerea Ibarrola Urraca

GIZARTE EKINTZAKO ZUZENDARIA

Izpta./Fdo. Tere Barrenetxea Arregi

GIZARTE EKINTZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Izpta./Fdo. Aitziber San Roman Abete